

**Euskalherriko Adiskideen Elkarteak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak Gasteizen elkarren artean erabiltzen duten ekitaldi aretoari “Henrike Knörr” izena jartzeko ekitaldi publikoan egindako hitzaldia**

Knörr-Santiago familia maitea, Biltzar Nagusietako lehendakaria, Aldundiaren izenean etorritako Diputatua, Landazuri Elkartearen lehendakaria, euskaltzainburua, euskaltzainak, Henrikeren unibertsitateko lankideak, euskararen aldeko elkartekoak, andere eta jaunak, adiskide guztiok,

Euskalherriko Adiskideen izenean Fernando Salazar eta Eusko Ikaskuntzarenean Maria Nieves Urrutia adiskideek hitz egin ondoren, Euskaltzaindiaren izenean Henrikeren laudorioa egiteko abagunea dut.

Lan erraza bezain zaila zait Henrike Knörr Borràs-en laudorioa egitea. Erraza, adiskideaz hitz egiteko bihotzari ezin agortzeko gaia dariolako. Zaila, era berean, pertsona landu baten bizitza oparoa ezin dezakedalako lerro soiletan labur bil.

Hiru erakunde gaude hemen zordun Henrikerekiko: Bascongada, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Henrikek bere-berekotzat baitzituen hiru erakunde min hauek. Arabako Aldundiari esker, aldameneko bulegoetan elkartuta bizi gara hemen eta etxekotzat ditugu hirurak hiru, hirurok bat egiten dugularik funtsezko gauzetan, gaurkoan bezalaxe.

Henrikeren omenezko ekitaldi honetan, Euskaltzaindiaren Ordezkaritza honen ikuspegitik Henrike nola ikusten dugun azaldu nahi genizueke. Nola ikusten dugun, nola ikusten dudan azkenean, nitasuna ezin baitut nire bihotzetik kendu Henrike bada tarte.

Euskaltzaindia eta Henrike Knörr hain trentzatua zuten izatearen ehuna, ze gauza bera ziruditen askorentzat Araban, ni barne.

Lanaren bitartez eta arian arian, erakundea eta hizkuntzalaria identifikatzen joan ziren pixkana pixkana, apurka apurka, bakoitzak bestearengan barruan zeukan hoberena uzten, horrelako prozesu luze bat moldatuz, irudien fusio antzeko zerbait lortu arte.

Henrike baino puxka bat zaharragoa izanik, beti daukat gogoan, begien aurrean izango balitz bezala, Henrike pertsonaren hazkuntza. Hazkuntza eta bilakaera. Ezagutu nuen Henrike gazte hura esperantza bat zen, promesa atsegin

bat. Oso gazte sartu zen Euskaltzaindian, bere hogeigarrenetan, 1975ean urgazle gisa eta handik gutxira, 1977an, euskaltzain oso.

Udaberri giro pozgarrian egingo zuen Henrikek Akademian sartzeko ageriko ekitaldia. Egun gogoragarria izan zen hura: 1978ko apirilaren 28a (San Prudentzio eguna, orain 30 urte luze). Henrike jadanik 1977ko otsailaren 26tik izendatua zen euskaltzain oso.

Diputazioaren Areto Nagusiak orduan dekorazio zaharrarekin zirauen; han bildu zen Euskaltzaindi osoa. Presidentzian izaten zen aulki bipertsonal nagusi haretan eserita zeuden Luis Villasante Kortabitarte euskaltzainburua eta Jose Mari Satrustegi Zubeldia euskaltzaina, Henrikeren sarrera-hitzaldiari erantzuna egingo ziona.

Henrike eta Henrikeren familia osoa alai ziren han, pozikan pozez eta irabazitako ohoreak ematen duen zirrarez beteta. Txari eta Eneko eta Garikoitzek, Henrikerekin batera, osatzen zuten orduko Knörr-Santiago familia ederra (Iruri faltatzen zen oraindaino).

Knörr-Borràstarrak ere kontent ziren, nola ez. Arrazoi osoz. Eta haiekin batera, areto nagusi haretan biltzen ginen guztiok.

Arabako euskaltzain oso bakarra genuen Henrike. Erraimun Olabide Carreraren heriotzetik, 1942tik, hogeita hamabost urte luzetan ez zen izan Arabako euskaltzain osorik Euskaltzaindian. Hala eta ere, Euskaltzaindiaren sorreratik, 1919tik bertatik, oraindik bizirik zen Odon Apraiz Buesa euskaltzain urgazle eta ohorezkoa Areto Nagusian genuen, Gurekin batera, Henrikek berak Odonen etxetik haraino lagunduta etorria. Ikustekoa zen zer begirune izaten zuen beti Henrikek adinezko jendearekiko.

San Prudentzio egun haretan, Henrikeren sarrera hura bizitzen ari ginenok esperantza sendoa genuen berarengan eta berak egingo zukeen geroko lanean, aurretik zekarren euskararen aldeko lan gogotsu eta emankorra ikusita.

Eta ederki gauzatu zen esperantza hura, etorriko ziren hurrengo hiru hamarkada marduletan. Henrike bihurtu zen Araban Euskaltzaindiaren erreferentzia guretzat. Gero eta haziago, heziago, ikusten baitgenuen Henrike.

Bizitzan denok izaten ditugu erreferentzia batzuk, bizitzaren esparru diferenteetarako erabiltzen ditugunak.

Euskara eta Euskaltzaindiarekiko gure erreferentzia zindoa Araban Henrike genuen. Euskaltzaindian sartua zen gazte bizkor hura, etengabeko

lanaren bidez lortutako jakinduriak jantzita, gero eta jantziago ikusten baikenuen, irabazten ari zen prestigioari esker. Harengan gorpuztuta sentitzen genuen aspaldian izandako ilusio emankor hura.

Tamalez, bizitza laburra izanda, Henrikeren kasuan laburregia izan zaiolaren sentimendua pairatzen dugu. Jakituriaz eta esperientziaz betetako pertsona hori gure ageriko gizartetik desagertzeak penaz utzi gaitu eta beraren ezaguera biziaren umezurtz.

Hala eta ere, jakin badakigu Henrikek nahiko lukeen azken gauza izango zela gu beraren umezurztasunaren menpe izatea. Bere oinordekoak sentitzen gara denok. Bere oinordetza beraren lanak, portaera eta markatutako giza jokaera ditugu.

Gurutzeko Iondone Johannesek esan zituen lerro haiek Henrikeren jokaerari aplika geniezazkioke:

“Mil gracias derramando,  
paso por estos sotos con presura  
y yéndolos mirando,  
con sola su figura,  
vestidos los dejo de su hermosura”.

Honelako zerbait egin digu Henrikek. Euskararen eta gizarte on eta egoki baten alde hainbeste lan sakon burutu eta hasi ondoren, lehendik gai askotaz genekarren jantzia, eraberritu, osatu eta edertu egin digu berak.

Eskerrak, Henrike, bihotz-bihotzez,  
zuk sortutako eta egindako lanei esker,  
Onomastikan zein euskararen historian eta zabalkundean,  
aurrera eraman gaituzulako,  
eta bai eta zure bizitza osoan bizi eta bizierazi dituzun  
duintasun eta gardentasun paregabeak ere  
gure gizarte osoari opa dizkiguzulako.

Goza gaitezen hemen geratu garenok Henrike pertsonaren edertasunaz eta gure ondoren letozkeenak ere edertasun berberaz goza bitez. Hala bedi.

Gasteizen, 2008ko abenduaren 2an  
Manu Ruiz Urrestarazu, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria